


# Beldurrak alde aldatuko ote?



**BEA SALABERRI**  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Iragan urteko azken egunek emazteen kontrako bortizkeriaren arloan, berri zenbait ekarri ditu eta aldaketa mantso baten lekukotasuna, hain zuzen ere horren adierazgarri da Matzneff idazlearen auzia.

2019ko abenduaren lehen partean aktualitatera etorri da Vanessa Spingora idazlearen *Consentement* liburua. Honetan Spingorak Matzneff idazle zaharraren meneko bizi izan zituen harremani buruz jarduten du.

Hotzikara ematen du Spingoraren lekukotasunak, are gehiago pentsatzen denean hemendik aitzina idazleak betiko kokatuko duela bere burua biktima horren azalean. Eleberri autobiografiko honetan errefera egiten dio borrheroari, Matzneffi, zeinek urteak lehenago literatur arloa hornitu baitzuen nasai-ki haren harreman pedofiloen eta perbertsoen kontaketeekin. Ez zen nehor orduan horretaz kezatu zenik. Ez orduan eta ez berantago. Izan ere, 2020 urte honetaraino, arloak babestu eta laudatu egin du –azken literatur saria 2013an edo jaso zuen–. Kanbiamena da ere, oihartzuna hartzeaz harago, auzibideak ere irekitzen direla.

Gauzak aldatu dira alde bat baino gehiagotatik.

Hasteko, aspalditik baldin bagenekien ere, etxetik harago begiratzuz gero, baster guztiak urde zikinez mukurru beteak zirela, orain jada publikoki eta ozenki salatzen dira jarrerak, ezin da horretaz espantuka ibili. Orain salaketa horiek entzunak dira; nahiz eta ez diren gutxi batzuk baizik epaituak izanen, oihartzuna izaten dute eta nehor ez du engotik inolako zalantzarik.

Urteak behar izan dira horretarako eta publikoki onarrarazteko, harremanak eta biziak gizonetikiko sumisio horretan oinarritzen direla.

Berri ona da gaur ezin egin izana menpekotasun harremanen apologia, bortxaketarena, manipulazioarena, pedofiliarena, hori ez gehiago onargarria izatea.

Bestalde aldaketa da Matzneffen kasuan, hainbat behartuak sentitzen direla orain laudatu izan dutenaren baztertze-ko. Izan ere, Matzneff, Renaudot sariaren irabazlea izan zen 2013an. Gaur sari emaileek diote hartaz agian okertu zirela.

Bizkitartean, ez dute gibelera egiten. Ez da arbuiorik. Aitorpen *soft* bat da, hitz-erdika egina. Bai, sentitzen da Beigbederren hitzetan –sariaren epaimahai buruetarik bat zen– garaiak aldatu direla, aldiz, ez, ez da oraindik iraultza. Oroit gaitezen duela zenbait urte honek berak

aldarrikatzen zuela nork bere puta ukatearen eskubidea *343 urde-zikinen* manifestuan; gaur ez lezake holakorik egin, hala pentsatzen segiturik ere.

Halere, kanbiamena ez da oraindik etxe guztietara heldua, anitzetan harremanek segitzen dute gordin eta gogor: ehun mila bortxaketa urtekal, 150 emazte erailak Frantziako Estatuan 2019an bikotekideen eskuetatik, haur eta gazteen laurdena sexualki eraso izanen da 18 urte bete aitzin eta bostetik batek tratatu txarrak jasanen ditu.

Zenbakiak agerian dira, berria da duela zenbait urteko egoerari konparatuz. Hori ere aldaketa da. Gaur bezainbat elkarte feminista ez da sekulan izan. Tendentzia politiko bakoitzak bederen talde filiatu bana du. Politikoez emazteen kontrako bortizkeria oro lehentasuntzat dute; dudarik gabe, ondoko martxoko hauteskunde kanpainen ildoetarik bat izanen da.

Bizkitartean, oraindik ere, neurri konkretu eta erradikalagoak itxaron dira. Ez baita ez interbentzio koadro, ez lege, ez babes dispositibo aski indartsurik oraindik, ez erasotzaileak zigortzeko, ez biktimak hitz egitera akuilatzeko.

Ez da aski beldurrak alde alda dezan. ●